

1235. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Xedea

Gazteleku zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Gazteleku zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua 2011ko abenduaren 31n amaitzen da.

Bigarrena: 2011ko azaroaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak Gaztelekuaren zerbitzua emoteko zerbitzu kontratuari jagokozan administrazio baldintzak eta baldintza teknikoak onartu ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: 2011ko azaroaren 22an, MB2000 Zerbitzu Soziokulturalak, Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkarteak eta Aisilan XXI elkarteak publizitate bako prozeduran parte hartzeko gonbidapenak jaso ebezan.

Bigarrena: 2011ko azaroaren 28an Aisilan XXI Elkarteak uko egin eutson gonbidapenari.

Hirugarrena: 2011ko azaroaren 29an eta 30ean, MB2000 Zerbitzu Soziokulturalak eta Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkarteak proposamenak aurkeztu dabez.

Laugarrena: Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Saileko teknikariek, 2011ko abenduaren 13an batuta, ondorengo puntuazinoa emotea erabagi dabe:

	Gaztelekua Zerbitzuaren Proiektua	Prezioa
MB 2000 Zerbitzu Sozio-Kulturalak	28	49,5
Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkarteak	38	51

Ondorioa: Batun-Batun aisialdi kultur elkarteak 89 puntu daukaz eta MB 2000 Zerbitzu Soziokulturalak 77,5 puntu.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Gazteleku zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua Batun-Batun aisialdi kultur elkarteari esleitzea. Epea urte betekoa da, 2012ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Dana dala, esleipen emoleak halan erabagiten badauen, kontratua beste urte bat luzatu ahal izango da, beti be, jatorrizko kontratuaren epea amaitu baino arinago.

BIGARRENA: Gazteleku zerbitzua emoteko zerbitzu kontratua 17.480 €-an esleitzea onartzea, BEZa kanpo. BEZari jagokon zenbatekoa 1.398,40 €-koa da.

HIRUGARRENA: Enpresa esleituari, aitaturako esleipen horren indarrez, segidan adierazoten diran jarduketak egin beharko dauzala jakinarazotea:

- Kontratua administrazio kontratu bidez formalizatzea.
- Jarduketa horreek egiteko epea hamar egunekoa izango da, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bermeon, 2011ko abenduaren 29an
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNeko IDAZKARIA